





Euskara elkarten Truke Gunea izan zen Villa Mirentxun.



Haur, ezin heldu ederki ibili ziren dantzan eta kantuan herrian zehar.



Hiru atso martxoso batu ziren kantu dantza jirara Okendo plazan.



Okerra harriaren errekorra ezin izan zuten hautsi Ostolaza eta Galarragak.

# Plaza betea Euskal Jai eta Topa Egunean Egitarau bateratuak harrera ona izan zuten

*Euskal Jaia eta Topa Eguna ospatu ziren Lasarte-Orian larunbatean. Goiza giro ezin hobean igarota, arratsaldea ere hala izan zen. Goizean Topa egunaren baitan, Euskara elkarte ezberdinetan burutzen diren hainbat egitasmoa ezagutzeko aukera izan zen. Euskal Jaian berriz, Isla plazatik abiatu da kantu-dantza jira txikia eta heldu zein helduen herriko kaleetan barrena ederki pasa dute kantuan zein dantzan. Hauek Okendora iristearekin batera hasi zen festa. Arratsaldean, Topa Eguneko ekitaldi nagusiaren ostean, haurrek hartu zuten plaza. Izan ere, Porrotx, Ane eta Piratak izan baitziren. Egunari amaiera emateko musika izan zen bai plazan, baita herriko kale eta tabernatan.*

**T**ruke Gunea eta dantza kantu jira izan ziren goizeko lehen hitzorduak larunbatean. Aurretik herriko txistulariek diana jo zuten herria esnatzeko.

Horrela izanda, Villa Mirentxun hamaiketan hasi zen esperientzia trukerako saioa. Bertan jardun ziren hainbat elkarte aurrera darमतzaten zenbait egitasmo azaltzen. Lehenengoak hitza hartzen Getxoko Egizu elkartekoak izan ziren. Mintzakua-drillak egitasmoaz hitz egin zuten eta honek izan duen harreraz. "Kuadrilla askotan lotsa dela eta ez da euskaraz hitz egiten, euren dinamika eta harremanak gaztelera

egin dira eta guk bilatzen dugu ohitura aldaketa hori gertatzea poliki bada ere".

Jarraian, Mungiako Txokolo elkartetik Berba proba lehiaketaz hitz egin zuten. 11 urte dira lehiaketa hau herrian gauzatzen dutela eta hizkuntzarekin jolastea du helburu.

Gasteizko Geu elkartekoek 'igandeak jai' aurkeztu zuten. Familian euskaraz hitz egiteko hilabeteetan behin eta eskola batean bi orduko saioak antolatzen dituzte euskarazko ikuskizun eta haurrentzako jokoekin. Laugarren esperientzia Oinherri taldearen herri hezitzaileen sarea izan zen eta azkena, Bergara-

ko Jardun elkarteak egindako herriko euskalgintzari buruzko gogoeta prozesua.

### Okerra ezin menderatu

Bitartean, herriko kaleetan barrena ederki gozatu zuten haur zein helduek dantzan eta kantuan Xumela eta plaza dantzako lagunekin.

Denak Okendora iritsita, festak eztanda egin zuten. Herriarrek harrera ederra egin zioten Euskal Jai eta Topa Egunari.

Hiru atso saltseroek gainera, kantu dantza jirako azken dantzak gidatu zituzten.

Jarraian Okerra harria berriz plazan ikusteko aukera izan zen. Aurreko urtetako Joseba Ostolaza harri-jasotzailea etorri zen erakustalditxo egitera Aimar Galarragarekin.

Biek beroketa saio batzuk egin zituzten 163kg-ko karratua hiru aldiz altxatuta. Ondoren, Udane Ostolaza gazteak erakutsi zuen 20kg-arekin ederki moldatzen zela aitak, 100 kg-koa altxatu bitartean.

Saiotxo honen ostean, Okerraren txanda izan zen. Aimar Galarraga izan zen

## Diruz laguntzen duten erakundeak

### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

### Laguntzailea



### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.info**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.com**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz



Okendo plazan sagardoarekin topa egin zuten herritar eta euskaltzaleek.



Porrotx,Ane eta Piratek Okendo plaza dantzan jarri zuten. Hainbat elkarte igo ziren oholtzara.

lehena. Nahikoa lan izan zuen harria nola eutsi asmatzen baina 5 minututan, 4 altxaldi egin zizkion herriko harri kuttunari. Josebak hartu zion lekukoa. Honek lehenengo urtean 7 altxaldi egin zizkion, iaz 6 eta aurtengoan soilik 2rekin konformatu behar izan du. Asko sufrituta hainbat saiakera eginda ere, ezin izan zuen Lasarte-Oriako harria menderatu.

Plazan bildutako zaleen gozamenerako harri borobila-rekin aritu ziren hiru harri jasotzaileak eta euren lana txalo zaparradarekin eskertu zuten.

Okerrarekin amaituta, Topa egiteko txanda izan zen, Xumelaren doinuekin sagardoarekin eztarria busti eta bazkarirako prestatu ziren bertaratutako herritar zein bisitariak.

**Jolasak, testigua eta dantza**

Bazkari ederra dastatu ahal izan zuten Okendo plazan bazkaltzera geratu ziren euskaltzale eta herritarrek.

Paella jan odoren, haur eta zenbait guraso ederki ibili ziren Ostadar SKTko guraso talde batek eta Intza elkarteak antolatutako herri-kirol eta pilota partidetan.

Topa Eguneko ekitaldi nagusia izan zen jarraian. Azalean azaldu moduan, Ttakun kultur elkarteak Atarrabiako Karrikaluzeko elkarteari eman zion Topa Eguna antolatzekeko testigua.

**Joseba Ostolazak hainbat saiakera eginda ere ezin izan zuen Lasarte-Oriako Okerra harria menderatu**

Ekitaldi formal amaitu eta Porrotx, Ane eta Piratek hartu zuten plaza. Ttakun kultur elkarteak, Zabaleta auzolan, Erketz EDT, AEK eta Solaskideak, Ttiriki Ttarraka, Xumela korua, Kukuka Antzerki eta dantza eskola, Jalgune elkarte eta Topaguneko lagunak izan ziren oholtza gainean.

Baina asko izan ziren haiekin batera plazan dantzan izan zirenak ere.

Bitartean, Gazte Klubeko gazteek photocalla jarri zuten oholtza ondoan eta igotzen zirenek argazkia ateratzeko aukera izan zuten.

Hau amaitzearekin batera, batetik herriko Oaintxe in deu!

txaranga atera zen Okendo plaza-tatik herriko kaleak alaitzera. Bestetik plazan geratu zirenek Eztengiro taldearen erromeria doinuez gozatu zuten.

Baina ez da plazan giroa izan bakarrik, herriko tabernatara ere euskal giroa iritsi baitzen, triki poteoari esker.

Hau guztiaz gain, ordu txikiak arte parranda egin nahi zuenak ere aukera izan zuten. Jalgi Kafe antzokian Xabi Aros djak euskal doinuek jarri baitzituen.

Honela, aurtengo Euskal Jaia eta Topa Egunari agur esan ziztaion Lasarte-Orian. Hurrengo urtean, Atarrabian izango da hitzordua euskaltzaleentzat.



Berrehun bat lagun bildu ziren paella gozoa jatera.



Haurrei zuzendutako, herri-kirolak eta pilota izan ziren bazkal ostean.

**Argazki gehiago 4 .orrialdean**



Jai giroa erromeria doinuekin amaitu zen Okendo plazan.



Herriko Oaintxe in deu! txaranga kaleak alaitzen izan zen.

**Bideo Lagunak**  
Lasarteko KROSSarekin

**URRIAREN 31RA ARTE**

**PLAN RENOVE**

**Bideo TIEN 21 Lagunak**  
Etxekotesna elektrikoetan adituak

**12 ORDAINDU**  
HILABETETAN INTERESIK GABE

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com



Argazki eta bideo guztiak [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) eta facebook orrialdean



*Eguerdiaren ere zabalik!*

**Lasarte-Oria Bai!**  
Krosarekin bat!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



**Carrefour**  
express




Hurrengo orrialdeetan:

- Lasarte-Oria Bai! XX. krosaren informazioa
- Korrika Festaren informazioa
- DYAko Joxepo Artolarekin elkarrizketa

*txintxarri.eus* helbidean lasterketako sailkapena eta argazkiak igandean bertan.

*www.ostadarskt.eus* helbidean ere krosetako emaitzak izango dituzue.



Kale Nagusia 39  
 Tel. 943 37 26 68 - Faxe: 943 37 07 37



**PATXI LARRAÑAGA  
 ANA IPARRAGUIRE  
 NAROA**



# Bi hamarkadako harremana

DYAk kideak omendu ditu aurten Ostadarrek; 1995etik daramate krosean laguntzen

**Ez dira gainontzeko lasterkariekin batera egoten irteera-lerroan, ibilbideko 10.500 metroak ez dituzte egiten, baina hainbat kilometro egiten dituzte Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian, anbulantzia zein bizikletetan, prebentzio-lanak eta larrialdiak egotekotan pertsonak artatzen. DYA elkarteko kideek krosaren lehenengo ediziotik daramate lan eskerga hori musutruk burutzen. Lasterketak 20 urte egiten dituen honetan Ostadar SKT antolatzaileak DYAk kideak omentzea erabaki du; haiek eramango dute bat zenbakidun dortsala.**

TXINTXARRI

Gutxi behar izaten dute ados jartzeko Ostadar SKT eta DYAk kideek krosaren inguruan hitz egiten dutenean; Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoia lehenengo edizioa 1995ekoa izan zen, eta han egon ziren DYAk prebentzio eta sorospen lanak egiten. Bi hamarkada igaro dira ordutik eta harremana ez da eten, ezta gutxiagorik ere, edizio guztietan aritu baitira hainbat bolondres lanean hori koloreko jantziak soinean.

Gipuzkoako DYAk burua da Joxepo Artola herritarra eta probintziako ekitaldietan egin beharrekoa hark koordinatzen du, krosa barne. Ostadarrekin

“ia automatikoki” jartzen dira ados, Artolak nabarmendu duenez: “Orokorrean nahikoa izan ohi da dei bakar bat”. 20 urteko harremanaren ostean, ez da harrizkoa.

Gogoan ditu Artolak bi hamarkada horiek. Hausnarketa ere egiten du: “Nola pasatzen den denbora! 20 urte igaro dira krosaren lehenengo ediziotik eta horrek sekulako poza ematen dit, urtetik urtera aurrera jarraitzen duela ikusteak”.

Poza. DYAk kideek hori sentitu dute jakitean Ostadar SKTk bat zenbakidun dortsala eman diela aurten. “Guretzat ohore bat da, oso pozik hartu dugu aitortza hau. Normalean esaten dugu ez dutela zertan

horrelakorik egin behar baina ilusio asko egin digu; Lasarte-Oria Bai! krosetik etorrira, zer esanik ez”, dio Artolak.

## Ekitaldi “berezia”

Izan ere, “egutegiko ekitaldi berezietako bat” da herriko krosa Artolaren aburuz: “Giro oso berezia sortzen da herrian egun horretan, beste tokietan ikusten ez duguna. Bihotzean daramagu, hasiera-hasieratik laguntzen ibili garenok batez ere. Xarma berezi bat du”.

Xarma hori mantendu du 20 urteetan zehar, baina beste hainbat aspektutan lasterketa aldatu egin da, Artolak esaten duenez. Adibidez, korrikalari kopurua: “Benetan harrigarria da zenbat jende egiten duen lasterka krosean gaur egun, korrika txikian batik bat. Haur horiek denak herriko kaleetan barrena lasterka ikusteak asko harritzen nau, beste inon ez dut ikusi horrelakorik”.

Jende gehiago aritzen da krosean eta prestatuago dago orokorrean, Gipuzkoako DYA elkarteko buruaren iritziz. Hasierako krosek alderatuz



Sortu zenetik 30 urte beteko ditu herriko DYAk 2016ko abenduan.

sumatzen du aldaketa hori: “Lehen parte-hartzera irteten zen jendea, denbora ona egin edo irabaztera baino; gisa honetako probak prestatzeko ohitura askoz gehiago dago orain, nire ustez”.

## Eguraldiari so

Lasterketa asko prestatu arren badago lasterkariekin kontrolatu ezin duten faktoreen bat edo beste. Eguraldia da horietako bat. “Klima hotza eta euritsua, ederki; beroa eta hego-haizea konbinatzen badira, kontuz. Kros eguneko eguraldia izan ohi da arazo gehien kausa, baina ez dut oroiten urteotan ezer larririk jazo denik”, esaten du Joxepo Artolak.

Martin Berasategi jatetxeko aldapan jarri ohi dute DYAk

kideek arreta gehien, bereziki atleta elbarriekin, kolperen bat hartu edo ibilbidetik atera izan baitira noizbait.

Minik eta zauririk eragiten ez duen arren, beste ‘etsai’ bat ere aintzat hartu behar izaten dute DYAk; ordu aldaketa, krosarekin batera urtero egin behar izaten dena. “Edizioen batean etorri izan gara behar baino ordubete lehenago, eta benetan harri eta zur geratu ginen, kaleetan ez genuelako inor ikusten prestaketa-lanak egiten. Galdetu genion gure buruari, ‘baina lasterketa ez al zen gaur?’. Ordulariari so egin eta orduan konturatu ginen, ez genuen aldatu”, oroitzen du Artolak, irribarretsu. “Aldrebes izan balitz, askoz okerragoa izango litzateke!”.

*Egun egoitzarrik ez duen arren, 2016ko abenduan 30 urte beteko dira Lasarte-Oriako DYA sortu zenetik*



Hamabost pertsona inguru aritzen dira krosaren egunean lanean, bizpahiru anbulantzia eta bizikletekin.



# ALBA

## ARROPA DENDA

Hemen dira denboraldi berriko arropa eta konplementuak!



KROSAREKIN BAT!!

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

## "Kroserako taldea osatzeko ez dut arazorik izaten, berehala ematen dute izena boluntarioek", dio Gipuzkoako DYAko buru Joxepo Artolak

### 15 bat boluntario

Aurreko gauean ordu-doiketa ongi egin eta Usurbilen duten egoitzatik irteten dira DYAko kideak igande goizean, erabili behar dituzten garraioekin eta materialarekin.

Bi edo hiru anbulantzia eramaten dituzte; hiruzpalau bizikleta ere bai. Denera 15 bat boluntario aritzen dira krosaren egunean prebentzio eta sorospen lanak egiten. Joxepo Artolak nabarmentzen duenez, ez du arazorik izaten egun horretan laguntzaileak topatzeko: "Oriako bailarako hainbat boluntario joan ohi gara Lasarte-Oriako krosera, eta ez dut burua hautsi behar izaten taldea osatzeko, askok berehala ematen dute izena, herrikoak izanik krosa euren

izango balitz bezala sentitzen baitute. Whatsapp talde bat daukagu eta batzuetan lasaitu egin behar izaten ditut, denek nahi izaten dute etorri".

15 laguntzaile horietako batzuk bizikleta gainean ibili ohi dira ibilbidean barrena, dena ongi doala ziurtatzeko. Bitxikeria moduan, Artolak aipatu du kroseran erabili zituztela lehenengoz ibilgailu horiek, duela 15 bat urte.

### Lasarte-Oriako DYA

Bizikleten urteen bikoitzak beteko ditu 2016an herriko DYAko delegazioak, 30 hain zuzen ere. 1986an sortu zen eta urteek aurrera egin ahala hazten eta hazten joan zen. 1991. urtera arte anbulantzia propiorik ez zuten eduki, urte



Lasterketaren 20 ediziotako bakoitzean aritu dira laguntzen DYAko kideak; Ostadarrek omendu egin ditu aurtan.

horretan erosi zuten lehena. Ordura arte beste delegazio batzuetakoak erabili zituzten.

Zumaburu eliza inguruan zegoen lokal bat erabili zuten hasieran, gozotegi bateko jabeak utzita, eta Kotxeras auzora joan ziren handik urte batzutura. Bertatik Goikale auzora igaro ziren, eta han eduki zuten egoitza herrian 2004ra bitartean. Usurbilen zuten beste egoitza eta Oriako Bailarako DYAK biak erabiltzen zituen. Urte horretan ordea, erabaki zuten Lasarte-Oriako egoitza uztea, biak mantentzea garestiegia zelako ordezkaritzarentzat. Orduraz geroztik Usurbilgotik egiten dute lan.

### 400 boluntario baino gehiago

DYA elkartearen osatzen duten ia kide guztiak (administrariak izan ezik) euren borondatez aritzen dira, "musutruk", Joxepo Artolak nabarmentzen duenez. "Gorakada" nabaritu dute azken urteetan, batez ere gazte jendea sartzen ari dela dio Artolak: "Oso pozgarria da jende gaztea gurekin lanean hasten ikustea; aurreko udan esaterako 30-40 gazte sartu ziren, 16 eta 18 urte artekoak, 'GazteDYA' egitasmoan parte

hartzera". Gazte zein heldu, hamaika aukera ditu elkartearen sartu nahi duenak, formatzen hasi eta etorkizunean laguntza ematen hasteko: Sorospeneko monitore, erreskate-teknikari, larrialdi koordinatzaile, etab.

"Boluntarioak dira DYAren izena eta izana, zalantzarik gabe", baieztatzen du Artolak. Urte osoan zehar aritzen dira lanean DYAko kideak, ez kirol ekitaldietan bakarrik, era guztietakoetan baizik. Urtaro gogorrena uda da haietzat, Artolak dioenez: "Herri askok orduan ospatzen dituzte jaiak eta guri berriz, lanean aritzea tokatzen zaigu. Dena dela, oso gustura aritzen garenez, ez dago arazorik".

### Bazkideak, ardatz

Boluntario gisa aritzen direnez gain, bazkideak dira elkartearen sostengatzen dutenak. 35.000 inguru dira Gipuzkoan ahal duten heinean DYAri diru-laguntza bat ematen diotenak.

"30.000 gipuzkoar baino gehiagok euren konfiantza eta dirua eman digute eta oso eskertzekoa da; ez dugu ahaztu behar haietzat egiten dugula lan", dio Artolak.

Gipuzkoan soilik ez, nazio osoan zehar dago hedatuta

DYA elkartearen baina Joxepok aipatzen duenez antolaketa eta azpiegitura aldetik Gipuzkoako hartzen dute eredu-tzat, nahiz eta erakundea Bizkaian sortu 1966an. Gauzak horrela, DYAK mende erdia beteko du 2016an.

### 28 urte DYAn

Berriro data eta urteurrenak aipatuta, 28 urte daramatza Joxepo Artolak DYAn. 1987an hasi zen Lasarte-Oriako ordezkaritzan lanean, txofer gisara. "Ama gaixo geneukan ospitalean, eta ni aritu nintzen hura zaintzen bertan, lau hilabetez. Gelako leihoak urtearen sailera ematen zuten, eta gauero ikusten nituen anbulantzia hara eta hona. Garai horretan sortu berria zen Lasarte-Oriako ordezkaritza; lagun batek komentatu zidan jendea behar zutela eta horrela hasi nintzen, txofer moduan, amari berari baimena eskatu eta gero".

Oraindik boluntario lana uzteko asmorik ez badu ere, Joxeporen seme-alabek hartuko dute lekukoa agian, dagoneko boluntario gisa aritzen baitira DYAn bi seme-alabak.

Hasierako lokala gozotegi baten aldamenean zegoenez, goizero *croissant* bat gosaltzeko ohitura hartu zuen Joxepok; hala egingo du igandean ere, DYAko kideekin elkartu eta, denek bat zenbakidun dortsala soinean, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia 20. edizio-ra laguntzera etorri aurretik.



28 urte daramatza Joxepo Artola herritarrek (erdian) DYAn laguntzen.

## Gipuzkoako DYAK 400 boluntario baino gehiago eta 35.000 bazkide inguru ditu gaur egun

TABERNA  
**Buenetxea**  
KAFETEGIA



Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 95 08

✓Txokolatea txurroekin

✓Infusio naturalak

✓Kafe bereziak

- Irlandarra
- Eskoziarra
- Kaputxinoa
- Bonboia

✓Eta pintxo aukera zabala!

- Hotzak
- Beroak
- Salda



# Lasarte-Oria Bai! kro



## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Solomoa baratxuritan


Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Txistorra

Baserri pateia



**BERTAKO FABRIKAZIOA**



# os nagusiko ibilbidea



-Orian  
**Kirola**  
*euskaraz*



-  **Tren Geltokia**  
Estación del Tren
-  **km. 0**  
Kilometroak  
Kilometraje
-  **i**  
Informazioa  
Información
-  **Izen ematea**  
Inscripción
-  **P**  
Aparkalekua  
Parking
-  **Konsigna**  
Consigna
-  **Dutxak**  
Duchas



**i. URRUZOLA**  
**ARRAZTEGIA**

Oria etorbidea 4, behea  
 (Errekatxo jatetxearen ondoan)  
 Tel.: 943 371200 / 610 413131  
**LASARTE-ORIA**



**Krosarekin bat eginez!**

- Era guztietako arrotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

# Lasarte-Oria bai! Krosa igandean

XX. edizioa da aurtengoa; 10:30ean hasiko da lasterketa

Atsobakarreko biribilgunean ikusi daiteke Lasarte-Oriako XX. Kros Herrikoia iragartzen duen kartela. Sei egun besterik ez dira falta herriko kaleak korrikalariz betetzeko. Izena emateko epea irekita dago oraindik, ostiralera arte. Ostadarreko bulegoan egin behar, aurtun Manuel Lekuonako kafetegian egin beharko da hau.

**K**orrikalariz beteko dira Lasarte-Oriako kaleak igandean. Egutegian gorri markatzen diren zita horietako bat iritsi da herrira, XX. aldiz: Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia.

Milatik gora korrikalarik hartuko dute parte igandeko lasterketan. Frutas Ruiz fruta dendaren parean izango da irteera puntua; helmuga, berriz, Okendo plazara iritsi baino apur bat lehenago, Laubide izenez ezagutzen den bidegurutzean. Guztira, 10.500 metroko ibilbidea egin beharko dute lasterkariak.

## Lasterketa

10:30ean hasiko da helduen lasterketa; ez dago inolako berrikuntzarik hor. Eta hau ere zerbait berria ez den arren, antolatzaileek ohartarazi dute kontuz ibiltzeko ordulariaren, urtero bezala ordu

aldaketa egin beharko delako krosaren egunaren goizaldean: goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Korrika egiten hasi aurretik agurra dantzatuko zaie korrikalari guztiei, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Gurpildun aulkian aritzen diren korrikalariak bi minutu lehenago hasiko dira 10.500 metroko ibilbidea egiten.

## Izena emateko leku aldaketa

Lasarte-Oriako XX. Kros Herrikoian parte hartu nahi dutenek hainbat bide dituzte izena emateko.

Aurtun, Ostadarrek Geltoiki kaleko lokalera joan behar, Manuel Lekuonako kafetegian (1go solairukoan) eman beharko dute izena lasterkariak. Urriaren 13tik aurrera egin beharko dute, 17:00etatik 20:00etara astegunetan.



Lasterketa 10:30ean abiatuko da ohiko lekutik, bi minutu lehenago aterako dira gurpildun aulkiko lasterkariak.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, "jende-pilaketak saiheste aldera" erabaki dute izen-ematea lekuz aldatzea: "Erosoagoa izango da prozesua; zerbitzu hobea emango dugu". Bestalde, Manuel Lekuonara gerturatzetik ez dutenek, Internet bidez eskuratu dezakete iganderako

dortsala. Ostadarren webgunean bertan egin dezakete ([www.ostadarskt.eus](http://www.ostadarskt.eus)), edo [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) atarian.

Hala ere, dortsalak oraindik agortu ez badira, lasterketa egunean posible izango da inskripzioa egitea, 9:00etatik 10:00etara, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

Ostadarreko bazkide direnek 8 euro ordaindu beharko dituzte lasterketan parte hartzeko (bazkide txartela erakutsi beharko dute izena ematean).

Bazkide ez direnek berriz, 12 euro ordaindu beharko dituzte. Norbaitek lasterketa egunean ematen badu izena, garestiagoa izango da: 20 euro ordaindu beharko ditu, bazkide izanda edo ez.

## Dortsalen banaketa

Bezperan banatuko du materiala Ostadar SKTk: korrikalarien dortsalak (txipak integratuta izango dituztenak) eta kamiseta teknikoak. Bezperan jasotzea gomendatzen dute Ostadarretik "Era horre-

tan lasaiago ibiliko dira korrikalariak lasterketaren egunean, eta igandeko ilarak saihestuko ditugu guk".

Urriaren 24ko (larunbata) ordutegiak honakoak dira: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30etara. Igandean, berriz, goizeko 9:00etatik 10:00ak arte egingo da banaketa. Antolakuntzatik azpimarratzen da agiriren bat eraman beharko dutela eurekin lasterkariak, materialaren bila joaten direnean. NAN, EHNA edo bestelakoren bat internet bidez izena eman dutenek eta kultur etxeko kafetegian apuntatu direnek bertan jasoko duten agiri bat.

Kamiseta tekniko bat jasoko dute opari korrikalariak, urtero bezala. Lasterketa amaitu ostean herriko kirol instalazioak erabili ahalko dituzte eta hainbat sariren zozketatan sartuko dira.

Aurreko urtean denbora neurtzeko txipa dortsalean integratu zuten lehenengoz, eta aurtun formula bera erabiliko dutela gogoratzen dute antolatzaileek.



Korrikalariak 10.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute herria zeharkatuz.



Irubide bailara 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 14 04 / 943 11 78 - [www.goiegi.com](http://www.goiegi.com)

Anima zaitetz  
eta  
EGIN ERRESERBA!

## GOIEGI

Jatetxea - Restaurante

### KROSERAKO MENU BEREZIA PRESTATU DUGU!

Oliotan ondutako berdela entsaladan,  
piper gorri eta berdeen olioipinarekin

...  
Kuiaz beteriko piper gorri gainerrea

...  
Idi-isats eta ondoz beteriko ravioliak, ardo txuri saltsarekin

...  
Plater nagusia aukeran: bakailoa pil-pilean edo txerri sahieskia labearen errea

...  
Etxeko azkenburukoa, etxeko edariak eta kafea



30€



Adinaren arabera distantzia ezberdina egin beharko dute lasterkariak.

## 14 urte artekoentzat kros txikia

Helduen lasterketa amaitu eta 12:15ean hasiko da

Korrika Festaren XV. edizioa egingo da aurten, nagusien lasterketa eta sari banaketa amaitu bezain laster, 12:15ean. Sei mailatan banatu dituzte antolatzaileek herriko haur eta gaztetxoak; 5 eta 14 urte arteko 700 korrikalari inguru espero dituzte. Iaz batzuk kanpoan geratu zirela eta aurten nahi duten guztiek izango dute aukera parte hartzeko.

TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZIA
A	2010	12h15'	100m
B	2009/08	12h25'	150m
C	2007/06	12h35'	Bira 1
D	2005/04	12h45'	2 Bira
E	2003/02	12h55'	3 Bira
F	2001/00	13h05'	3 Bira

**N**agusien lasterketa eta sari banaketa 12:15 aldera amaituko dira, baina horrek ez du esan nahi igandeko ekitaldi guztiak ordu horretan bukatuko direnik. Kros Txikiaren XV. edizioa ospatuko da segidan.

Haur eta gaztetxoentzat txanda iritsiko da helduen lasterketa amaitu eta berehala. Antolatzaileek 700 bat korrikalari gaztetxo espero dituzte, 5 eta 14 urte artekoak, hau da 2000. urtean jaiotakoak izanik zaharrenak.

### Ibilbideak

Urtero legez, adinaren arabera mailatan banatu dituzte korrikalariak; aurten, sei mailatan.

A mailakoak izango dira Korrika Festan parte hartuko duten gazteenak. 100 metro korrituko dituzte 2010. urtean

jaiotakoek. Frutas Ruiz denda parean hasiko dira eta Okendo plazaraino egin beharko dute lasterka.

Txikiak amaitu eta hamar minutura, 12:25ak aldera izango da B mailakoentzat txanda (2009an eta 2008an jaiotakoak). Apur bat luzeagoa izango da haien ibilbidea: 150 metro Geltoki eta Iñigo de Loyola kale arteko bidegurutzetik, Okendo plazara arte.

2007 eta 2000. urte bitartean jaiotakoak 400, 800 eta 1.200 metroko ibilbideak burutuko dituzte. Okendon hasi, Hipodromo kalea hartu eta Ustin kaletik barrena joango dira. Blas de Lezotik Geltoki kalera egin eta Okendon bukatuko dute. Adinaren arabera izango da eman beharreko itzulien kopurua: zenbat eta helduagoak izan

haurrak, orduan eta itzuli gehiago egin beharko dituzte (1 eta 3 artean).

### Haurrak eramateko guneak

Gaztetxoentzat mailaren arabera, gune batean edo bestean utzi beharko dira, lasterketetan parte hartu dezaten.

Gazteenek (A eta B mailakoek) Michelingo kirol gunean izango dute harrera gunea. Gainontzekoek berriz, Antonio Mercero plazan eta Udaletxe berriko arkupeetan.

Antolatzaileek ohartarazi dute komenigarria dela haurrak lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago eramatea harrera guneetara, lasterketak ongi antolatzeko denbora eduki dezaten.

Korrika Festa amaitzen denean, Okendo plazako helmuga ingurura joan beharko dute familiek haurren bila.



Izena emateko Manuel Lekuona Kultur etxeko kafetegira joan beharko da.

### Izena ematea

Helduen kasuan gertatzen den moduan, Kros Txikian parte hartu nahi duten haurrek aukera dute oraindik Kros Txikian izena emateko.

Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian eman beharko da izena. Gaurtik ostiralera egongo da aukera, arratsaldeko 17:00etatik

20:00etara. Bestela, azken egunean ere izango dute aukera inskripzioa egiteko, Okendoko informazio gunean 11:00etatik 12:00etara. Izen ematearen prezioa 5 eurokoa da.

Korrika Festan parte hartzeagatik kamiseta bat, domina bat eta hamaiketakoak jasoko dituzte haurrek.

**Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
  - TB/HI-FI
  - Instalazio elektrikoak

Lasarte-Oria Bai! Animo korrikalari guztiei!!

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

**Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521**

# Gaur hasiko da 'Bezeroaren Hamabostaldia' kanpaina

Aterpeak erosleak saritu nahi ditu hainbat deskontu eta oparirekin

**Aterpeak aurten ere 'Bezeroaren hamabostaldia' kanpaina abiatuko du. Elkarteko kide diren dendetako erosleak saritu nahi ditu honekin eta horrela izanda, deskontu eta opari ezberdinak irabazi ahaliko dituzte bezeroek urriaren 19tik 30era erosketak eginez gero.**

**G**aur hasiten da Aterpearen 'Bezeroaren Hamabostaldia' izeneko kanpaina eta urriaren 30ean bukatuko da. Tarte horretan herriko merkatarien elkarteko kide diren dendetan erosketak egiten dituztenek mota askotako deskontu-txartel eta opariak eskuratu ahaliko dituzte, Aterpeako lehendakari Ramon Ormazabalek azaldu moduan.

Manuel Lekuona kultur etxean ikuskizunak ikusteko sarrerak, 2 eta 3 euroko deskontu-txartelak...eta Aterpeko komertzio bakoitzak prestatutako zenbait eskaintza berezi. Aldaz Hartz Klinikak doako azterketa bat eskainiko du X izpiak eta garbitasuna barne; Arkupe tabernak rabio-

li pintxo bat eta ardo txuri bat doan; fular bat oparitu dio Alba modak 30 euro baino gehiagoko erosketa egiten duen bezero bakoitzari; Aritzta Mertzeriak %10eko deskontua egingo du 10 euro baino gehiagoko erosketetan; Noaoa bidaiak spa baterako sarrera eskainiko du doan; Sukoa burdindegian sukaldeko uleak %15 merkeago salduko dituzte; Josema sarraila-dendan %20ko deskontua izango dute produktu guztiek; Ormazabal loradendak %10 merketuko ditu dekorazio eta modako artikulua osagarriak eta Martin Berasategi jatetxeak bi pertsonentzako afari bat oparitu du.

Eskaintza horiez guztiez



Aurreko astean aurkeztu zuen Aterpeak 'Bezeroaren hamabostaldia'.

gain, 300 euroko txeke bat zozketatuko du Aterpeak. Hastear den kanpaina zehar elkarteko dendetan erosten duten guztiek hartuko dute parte.

Irabazlea nor den erabakitzeke ONCEk hilaren 31n egingo duen zozketa erabiliko dute erreferentzia gisa. Aterpeko komertzioetako bezeroaren txarteleko azken lau zenbakiek bat etorri

beharko dute ONCEren zozketaren irabazlearekin.

Kanpaina aurkeztu ostean eskerrak eman zituen Aterpeko lehendakari Ramon Ormazabalek. Lasarte-Oriako Udala (Sozioekonomia eta Kultura Batzordeak batez ere), kanpaina parte hartuko duten komertzioak eta Martin Berasategi sukaldaria izan zituen gogoan.

Beatriz Juez Sozioekono-

mia Batzordeko buruak hartu zuen hitza ondoren, eta azpimarratu zuen "herriko merkataritza sustatzeko ekintza garrantzitsua" dela Bezeroaren hamabostaldia: "Aterpeak urtean zehar burutzen dituen ekintzen artean garrantzitsuenetako bat da".

Era berean, Kultura Batzordeari eskerrak eman zizkion haiekin elkarlanean aritzeagatik.

## IKASTAROA

Mendekotasuna dutenak mugitzeko ikastaroa

Mendekotasuna duten pertsonen mobilizazioa eta transferentzia aztertuko dira. Ikastaroa azaroaren 2an, 3an eta 4an izango da, 17:00etatik 20:15era Pakea Galdos erizainarekin. Inskripzioa 663 057 223 zenbakian edo formakuntza@laharelkargoa.org-n egin behar da. Ikastaroa doan da baina gehienez 20ko taldea onartuko da.

Janari manipulazailerik ikastaro berriak

Ostalaritzako sektoreari zuzendutako janari-manipulazailerik ikastaro berria antolatu da, urriaren 26an Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Ordutegia 09:30etatik 13:30ra bitartekoa izango da. Prezioa 45 eurokoa da, eta langabetuentzako 35 euro. Diruz lagundutako ikastaro bat ere eskainiko da, 10 ordukoa, hotz enpresei zuzendua. Honakoa urriaren 27an eta azaroaren 3 eta 5ean, 17:00etatik 20:20era izango da. Informazio gehiago edo izena emateko, deitu OMIC bulegora 943 361 605 edo Elkolab 943 533 303.

## Manttangorriren geralekuetan seinaleak

**U**daletik jakitera eman denez, gobernu taldearen helburuetako bat da udalerriko seinaleetara osatu eta eguneratzea.

Horren barruan sartzen da Manttangorri hiribusaren 28 geralekuetako seinalizazioa.

Guztira 12.303 euroko aurrekontuarekin, autobusaren geralekua adierazten duten seinaleak instalatuko dira. "Tratu On Bat" marka komertziala eramango dute hauek eta horretaz gain, autobusaren geralekuak behar duen espazioa erreserbatzeko lurra margotu egingo da.



Lasarte-Oriako merkataritza biziberritzeko plan bereziaren (PERCO) barruan kokatzen da ekimena eta helburuetako bat da merkataritza eta hiri-zerbitzuak herritarrek errazago identifikatzea,

oinezkoen zein ibilgailuen emaria merkataritza-ardatzetara bideratzeko.

Udalak 8.134 euroko finantzazioa eskatu dio Eusko Jaurlaritzaren Hirigune programari hau garatzeko.

aldizkariak  
esku-orriak  
kartelak  
egutegiak  
katalogoak  
papeleria  
agendak  
koadernoak  
karpetak  
logotipoak

**INPRENTA**  
**DISEINU**  
**GRAFIKOA**  
**DISEINU**  
**EDITORIALA**



**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
www.antza.eus



# Ane Labaka lasaiago lehiatuko da

Herriko bertsolaria final laurdenetara pasa da hirugarren puntuazio altuena lortuta

**Gipuzkoako Bertso txapelketako final zortzirenak amaitu ziren igandean Andoainen eta dagoeneko final laurdenetako saioak osatu dira. Erreterriakoan, urriaren 25ean, Ane Labaka lasarteoriatarra izango da. Unai Muñoa kalean geratu da eta Erra! Bertso eskolako Asier Azpiroz eta Beñat Iguaran aurrez aurre izango dira final laurdenetako lehen saioan, urriaren 24an, Urretxu-Zumarragan**

**A**ne Labakak urriaren 25ean, igandean, Erreterriako Agustina Otaola raketista profesionala pilotalekuan abestuko du Gipuzkoako Bertso txapelketako final laurdenean.

Lasarteoriatarra final zortzireneko sailkapeneko hirugarren postuan amaitu du, 444 punturekin. Bere aurretik Jokin Uranga, Andoaingo saioa irabazlea eta Joan Maia, Beasaingo saioa irabazle izan dira soilik.

Bertsolari gazteak adierazi zigunez, "ez nuen espero hain goian amaitzea. Beasainen saioa amaitu ostean, adituak gerturatu zitzaizkidan. Oso media handia nuela eta goian egongo nintzela esan zidaten. Oso gustura geratu nintzen egindako lanarekin."

## Izen potentekak

Eskuratutako puntuaketaren arabera, bigarren final laurdenekoan lehiatuko da Erreterrian, 17:30etik aurrera.

"Lasaiago hartuko dut. Aurreko fasean nire esku zegoen eta ongi egin nahi nuen. Nire buruari jarri nion presioa. Orain 18 bertsolari bakarrik igaroko dira eta maila ere altuagoa da. Pasa ahal naiteke edo ez. Nire esku dago ere, baina lasaiago egongo naiz," aipatu digu.

Saio horretan Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Iñigo Mantzizidor "Mantxi", Amaia Iturriotz eta Iñaki Gurrutxaga izango ditu arerio. "Gustura nago saioarekin. Izen potentekak daude honetan ere. Gainera, Beñat eta Amaiarekin Donostian biltzen naiz txapel-



Beasaineko saioan maila altua erakutsi zuen Labakak.

keta prestatzeko eta horrek konfiantza eta bestelako babesa ematen dit".

18 bertsolari sailkatuko dira finalaurrekoetarako. Saioetako irabazleek zuzeneko txartela eskuratuko dute eta puntuazioz beste 13 bertsolari osatuko dituzte saioak.

## Beste saioak

Honetaz gain, Urretxu-Zu-

marraga, Zestoa, Ormaiztegi eta Eskoriatzan izango dira final laurdenetako saioak. Hauetatik kanpo geratu da herriko beste ordezkaria, Unai Muñoa.

Baina lehenengo saioan, Erra! Bertso eskolako Asier Azpiroz eta Beñat Iguaran izango dira hala nola, Agin Laburu eta Jexux Mari Irazurekin nor baino nor.

## Txartelak

Erreterriako, zein beste final laurdenetako saioak zuzenean ikusi nahiez gero, txartelak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) web orrialdean daude eskuragarri. Internet bidez erosten ez diren sarrerak areto bakoitzeko leihatiletan jarriko dituzte salgai, saioak hasi baino ordu eta erdi lehenago, 16:00etan alegia.

## Lasarte-Oria Bai! krosa eta Tratu On Bat marka eskutik

**J**esus Zaballos, Beatriz Juez Soziokonomia alorreko arduraduna, Imanol Baradaji Ostadarretik eta Ramon Ormazabal Aterpeako lehen-dakaria izan ziren sinadura ekitaldian.

Hitzarmenaren bitartez alkateak azaldu zuenez, herriko merkataritza eta kirol sustapena batzea izan da helburua. "Kros herrikoiak jende asko ekartzen du herrira urtero eta hau dela eta, ezin aproposagoa da kirol ekitaldi hau herriko merkataritzaren Tratu On Bat marka sustatzeko".

Horrela izanda, Udalak Tratu On Bat markaren susta-

pena egiteko, Ostadarri nylonezko 2.000 poltsa emango dizkio krosean parte hartzen duten guztien artean banatzeko. Horretaz gain, udala helduen 1.300 dortsaletan zein haurren 800etan publizitatea jartzeaz arduratuko da. Horretarako 2.000 euro emango dizkio udalak kirol taldeari. Azkenik, Ostadarrek bere aldetik, lasterketa iragaritzeko kartel eta eskuorrietan Tratu On Bat marka txertatzea konprometitu da.

Bigarren hitzarmen batean sinatu da udala, Aterpea eta Ostadarren arteko elkarlana. Honetan lankidetzat jasotzen



Udala, Ostadar eta Aterpeako ordezkariak sinatu zuten elkarlana.

da hiru erakundearen artean. Krosean Aterpeak prestatu duen promozio-kanpainaren

1.500 esku orri banatuko ditu Ostadarrek. Kanpainaren arabera, 5 euroko deskontu txar-

tela eskuratu ahal izango da gutxienez 30 euroko erosketetarako, parte hartzen duten elkarteetako dendetan. Eskuorriak udalak egingo ditu.

Azkenik hiru erakundearen artean elkarlanean jarraitzeko asmoa sinatu da 2016. urtean marka sustatzen jarraitzeko.

Aldeak pozik agertu ziren elkarlanarekin. Ramon Ormazabalak halako ekitaldi jendetsua herriko merkataritza eta ostalaritzari bultzadaxoa emateko baliatu behar dela esan zuen eta Imanol Bardajik, herriko merkataritzari laguntza ematea garrantzitsutzat jo zuen.

Kaxuela,  
pintxo eta  
"morunoetan"  
espezializatua!!

# SANTXO TABERNA

HITZARTUTAKO ETA  
TALDEENTZAKO  
MENUAK

OGITARTEKOAK  
PINTXOAK  
PLATER KONBINATUAK  
EGUNEKO MENUA

Oriamendi enparantza, 1 beheka - Lasarte-Oria - Tel. 943 37 20 75

## Agenda

Larunbata, 18:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



### 'Zapatila gorridun mutikoa'

Ados Teatroaren haur antzerkiak gozatzeko aukera izango da. Mutilei egitea gustatu ohi zaien gauzak egitea gustatzen ez zaion mutikoa da protagonista. Berak nahiago du mozarrotu, rock & roll izar baten modura abestea eta batez ere, dantzatzea. Munduan bere lekua aurkitzeko gai izango ez balitz bezala. Sarrera 3,80 euro.

### Irakurketa

MANUEL LEKUONA

Asteartea, 18:30ean

Uxue Alberdik gidatuta Irakurle Txokoaren lehenengo saioa. Honetan Sofi Oksanen "Garbiketa" lanaz arituko dira.

### Dantza

OKENDO PLAZA

Igandea, 18:00etan

Muxikoak dantzatzeko aukera izango da plazan. Iaz hasitako ekimenarekin jarraitzeko asmoa dute herriko Erketz, Kukuka eta Ttakuneko plaza dantzako kideek, dantza plazara berriz aterako dute. Horrela hilabetean behin eurekin dantzatzeko aukera izango da.

### Musika

AVENIDA TABERNA

Ostirala, 20:00etan

Bar Remigio taldearen kontzertua. Bad Religion taldeari omenaldia. Sarrera doan.

SAN PEDRO ELIZA

Larunbata, 19:00etan

SuBerri akordeoi orkestraren kontzertua bazkideei eskainita. Sarrera doan.

## Lasarte-Oria

### Ipuin kontalaria

MANUEL LEKUONA

Asteartea, 18:00etan

Herriko Kontukantoi bikotearen ipuin kontaketa izango da haur liburutegian. 6, 7 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua. Doan.

### Zinea

MANUEL LEKUONA

Ostirala, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen zine foru-

mean "Lore" filma ikusi ahal izango da. II.Mundu Gerra du ardatz film alemaniar honek. Lore protagonistak bere anai-arrebak gerratik urrundu nahiko ditu. Rachel Seiffert idazlearen 'El cuarto oscuro' eleberriaren adaptazioa da. Sarrera 5,50 euro.

Larunbata, 20:00etan

Helduen zine atalean "Ricki". Meryl Streep da protagonista eta rock izarra izateko familia utzi ondoren, alaba laguntzera joaten den amaren papera egiten du. Sarrera 5,50 euro.

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinean "Atrapa la bandera" marrazki bizidunetako filma ikusgai izango da. Ilargira bidaia egiten duen gaztetxo talde baten abenturak kontatzen ditu filmak. Sarrera 3,80 euro.

Igandea 25, 19:30ean

Larunbatean zinemara hurbildu ezin zirenek, helduen zine atalean Meryl Streep aktorearen "Ricki" filma ikuszeko aukera berria izango dute. Sarrera 5,50 euro.

## Herritarren txokoa

### Eskutitza

### Alternatiben herria

#### 63an jaiotakoen afaria

Aurten ere 63an jaiotakoen afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da. Aurrez, Okendo plazan gertatuko dira 20:00etan pote bat hartzeko. Menua 36 eurokoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera. Informazio gehiago, Agustín Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

#### 65ean jaiotakoen afaria

1965ean jaiotakoen afaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiagorako Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

#### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, urriaren 23ean, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

#### Lasarte-Oriako misio taldearen ekintza bereziak

Haitiko Teothule Dumond apaizaren bisita dela eta herriko taldeak bilera antolatu du berarekin asteazkenean 19:00etan Brigitarren komentuan. Larunbatean berriz, elkartasun afaria antolatu da 20:30ean Arantzazuko Ama parroikiko aretoan, dirua biltzeko.

Gaur egun sistema kapitalistan oinarrituriko gizarte hau usteldua aurkitzen da, norbanako zein kolektiboen eskubideen urraketa etengabearen ondorioz. Honen aurrean zenbait eragile ezberdinek egiten duten borroka nabarmena da nahiz eta errealitatean hauen lana ez den behar bezala baloratzen.

Alternatibak dituen herria bizirik dagoen herria da eta horixe irudikatzen duen asmoz datorren urriaren 24ean Alternatiben Herria ospatuko da Bilbon. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, egunerokoan bizia ematen diguten hamaika proposamen handi eta txikien erakusle hori izateko asmoz.

Bilboko Areatza inguruan kokatutako 5 gune ezberdinetan

hainbat eta hainbat izango dira egitaraua osatuko duten ekimenak. Tarteetan, gai ezberdinetako hitzaldi eta mahai inguruak, tailerrak haur eta helduentzat, azokak, bideo proiektzioak, musika eta gure inguruko janari eta edari goxoak.

Ekimen honen helburu nagusiak hauek dira:

-Euskal Herriak herri gisa alternatibak badituela zabal-tzea eta beste eredu sozial hori zehazten hastea.

-Euskal Herriko Mugimendu Sozialaren kohesioan urratsak egitea.

-Trantsizio sozial eta ekologikoa lortze bidean, gizartearen aktibazio eta mobilizazio beharra azpimarratzea, eta horretarako gonbita egitea.

-Alternatiben Herriaren

ondoren alternatiba horiek guztiek elkarlanean jarraitzea.

Ezin dezakegu urratzen diguten zerbait hitzez aldarrikatu, hauek aireak eramaten dituelako. Kalera irten eta geure gorputz zein arimaren etekinik handiena atera beharra daukagu, ezina ekinez egina lortzen delako.

Hortaz, alternatibak ezagutu eta aldarrikatzeko eguna dugu urriak 24ekoa. Bakarka, bikotean, hironaka, familian edo nahi bezela joatekoa. Animatu eta aktibatu!

**Oharra:** Buruntzaldeatik autobusa irtengo da goizean joan eta arratsalde bukaeran itzultzeko. Informazioa jaso edo apuntatzeko deitu telefono honetara: 943 670 026

[alternatibenherria.eus](http://alternatibenherria.eus)

ANIMO KORRIKALARI GUZTIAI!

Lasarte-Oria Bai!

**MAITE**

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Lasarte-Oria Bai!

Krosarekin bat eginez!

Etorri gure jaki goxoak probatzera

VINA DEL MAR

TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

# LUIS CAR

## autobusak



- Españtako eta nazioarteko garrailo-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.



Korrikalariekin bat eginez!

Lasarte-Oria Bai!

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA

## ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK

2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEZITZA. SANTA BARBARA ALDEA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

189.000€

+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK SEI MINUTUTAN!



### INFORMAZIOA



943 368 942

www.zabaletaberri.es



# %80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankek finantzatuta





# ORAIN **GIPUZKOA**

Egiteko ordua da, Gipuzkoa aktibatze ordua, geuri eta gainerakoei zertarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta batu garenean. Berriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak asmatu ditugu, I+G+Bn liderrak gara... gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz harro, baina Europara eta mundura zabalik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkartasuna ere. Estatu mailan liderrak gara ongizatean, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara. Eta ez

dugu zarata handirik egiten. Apaltasunez, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzeko. Kexak eta aitzakiak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganean geratu da. Zurikeriak iragana dira. Geldirik egotea iraganeko kontua da. Ezin dugu jarraitu arazoei bueltaka. Hori guztia atzoko gauza da.

Orainari buruz hitz egiteko unea da. Etorbizuna orain da eta etorkizuna eraikitze erabakiak orain hartu behar ditugu. Gure lurra zaintzea orain da. Elkartasuna orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.  
Eta orain gaur da.